

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

Lokalbide, alde zaharreko lokal hutsen dinamizazio alokairurako dirulaguntza oinarriak zuzentzea. (BDNS 619457) 2022 000002804 Alkatetza Dekretuaren erabakian oinarrituta.

Akats bat aurkitu da 2022ko apirilaren 20an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen «Lokalbideko» oinarrietan eta hurrengo aldaketen bitartez zuzendu egin nahi da:

- 5. artikuluan «Onuradunak» puntuan modu generiko baten aipatzen ditugu onuradunak eta pertsona fisiko edo juridikoak edo ondasun-erkidegoak izan daitezkeela esan beharko zen.
- 6. artikuluan «Eskabideak: Izapidetzea, aurkeztu beharreko dokumentazioa, epea eta modua hurrengo hau gehitu»:
Ondasun-erkidegoen kasuan, 6. artikuluan aipatutako dokumentazioaz gain, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:
 - Ordezkeri edo ahdun bakarra izendatzea, bai eta taldeko kide bakoitzak bere gain hartutako gauzatze-konpromisoak eta bakoitzaren partaidetza-ehunekoa zehazten dituen ziurtagiria.
 - Eraketa egiaztatzen duen dokumentua.
 - Zinpeko aitortpena diru-laguntza ematen den egunetik 4 urte ostean elkartea ez desegitea.

Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eskariak aurkezteko epea zabaltzen da, lehendik aurkeztuta egon direnen kalterik gabe.

Bermeon, 2022ko abuztuaren 11n. — Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense